



EBAZPENA, 2018ko martxoaren 23koa, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordearena, 2018-2019 epealdirako ekipamendu zientifikoa eskuratzeko laguntzak emateko 2018eko deialdia egiten duena

Hezkuntzako sailburuaren 2017ko urriaren 24ko Aginduak (EHAA, 209. zk., 2017ko azaroaren 2), 2018-2019 epealdirako ekipamendu zientifikoa eskuratzeko laguntzak emateko deialdia egiten du.

Deialdi horretan parte hartzeko eskabideak ikusi dira.

Ikerketa Zuzendaritzako zuzendaria buru delarik, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariak eta ikerketa-programen teknikari batez osatutako ebaluazio-batzordeak egindako esleipen-proposamena ikusi da, deialdiko 10. eta 11. artikuluek ezarritakoarekin bat etorrira,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ekipamendu zientifikoa eskuratzeko diru-laguntzak esleitzea, **Ebazpena1. Eranskinean** datozenak. Bertan agertzen da aldi berean entitate onuradunak ekipamendua lortzeko ekarri behar duen diru-kopurua

Bigarrena.- Prozedurara onarturiko gainerako eskabideak ezetzatzea adierazten diren arrazoiengatik eta baztertutzat adieraztea **Ebazpena 2. Eranskinean** agertzen diren gainerako eskabideak aipatzen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka interesdunak gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango dio Hezkuntzako sailburuari, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Gasteizen, 2018ko martxoaren 23an.



ADOLFO MORAIS EZQUERRO DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Ikerketa eta Unibertsitate Sailburuordea
Viceconsejero de Universidades e Investigación